

Euskaltelen 6. “*Kirol Eguna*”k denontzako moduko kirol-jardueretan parte hartzeko gonbita egiten du

- *Ekainaren 3an, larunbatarekin, Euskaltelen 6. Kirol Eguna ospatuko dugu. Oso zabala da kirol-egitaraua: 3ko futbola, minisaskibaloia, zunba, jumping-a, frontoia, herri-kirolak, sokatira, eskalada-murrua, saskibaloia egokitua, beisbola, badmintona, piraguak eta batelak, ibilketa nordikoa, patinajea, xakea, bideo-jokoak...*
- *Kirolez gain, berrikuntza bat dugu aurten: swing dantzaren MasterClass bat, ‘Crazy Jazzers’ Dixie Band-en musikarekin.*
- *“Aktibatu zure kirol-grina” lelopean, Euskaltelek kirola egiteko erraztasunak eman nahi dizkie denei, adin guztietakoei, aukeran izango dituzten kiroleko edozein probatu dezaten.*
- *Euskaltelen “Kirol Eguna” goiz eta arratsaldean ospatuko dugu, eta atsedenditxo bat egingo dugu bazkaltzeko Bilboko Areatzako kaian.*
- *Arratsaldean, “Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako 3ko futboleko IV. txapelketa inklusiboa” egingo da, Athletic Fundazioak lagunduta.*
- *Euskaltelek antolatzen du VI. Kirol Eguna, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren eta Bilbao Kirolak erakundearen laguntza du.*
- *Aurreko urteetako parte-hartze handia gairatzeko asmotan dator 6. edizioa. Aurrekoetan, 6.000 lagun inguru elkartu izan dira Bilboko Areatzako kaian.*

Bilbon, 2017ko ekainaren 1ean. Ekainaren 3a, larunbata, kirolaren eguna da Bilbon eta Bizkaian. Hemen da Euskaltelen *Kirol Eguna*, seigarren urtez jarraian. Berrikuntzak dakartza, eta hainbat kirol-diziplina, adin guztietako jendeak Bilboko Areatzako kaian egingo diren jardunaldietan parte har dezan. Arratsaldean, “Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako 3ko futbol-txapelketa inklusiboa” egingo da, Athletic Fundazioak lagunduta.

Euskaltelek antolatzen du Kirol Eguna, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren eta Bilbao Kirolak erakundearen laguntza du.

Bertarutzen direnek edozein jarduera probatu ahal izango dute aukeran izango dituztenen artean, doan. Gonbita egiten diegu denei parte hartzeko eta kirol-giro zintzoan goatzeko.

Hainbat partida, erakustaldi eta kirol-modalitate erakargarri izango dira, kirola eginez ondo pasatu nahi duten guztientzat. Este baterako, Alex Txikonek alde batera utziko du egun batez alpinismoa, eta herri-kirolen erakustaldi bat egingo du; Gaztedi sokatira-taldeko kideak, berriz, sokatira probatu eta ondo pasatu nahi duten guztiakin lehiatuko dira. Kaiku, Zierbena eta Urdaibaiko arraunlariak lekutxo bat egingo diete traineruan goizean Pio Baroja kaleko pantalanera (udaletxearen aurrean) hurbiltzen direnei. Sestaoko Xake klubeko maisuek aho zabalik utziko gaituzte xake-mate ikusgarriekin.

Kirol Egokituaren Euskal Federazioak ere makina bat kirol-aukera eskainiko ditu, BSR Bilbao taldeak lagunduta: gurpil-aulkiko saskibaloia, slaloma eta hockeya.

Euskaltelen VI. Kirol Egunaren ordutegia hau izango da: 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

Kirol-modalitateak

Aurten ere 3ko futboleko eta minisaskibaloiko txapelketak jokatuko dituzte Kirol Egunean gazteek osatutako taldeek (aldez aurretik, izena eman behar da webgune honetan: gozatueuskaltel.com).

Bilboko Areto Futboleko emakumezkoen taldearen eta Stilo Kirol Klubaren aurka jokatzeke aukera izango dute 3ko futboleko txapelketa irabazten dutenek. Txapelketako saria: hurrengo denboraldiko partida batean, San Mamesen, Athleticen jokalarien eskutik aterako dira irabazleak futbol-zelaira.

Minisaskibaloiko txapelketa irabazten duten taldeek, berriz, partida bat jokatuko dute saskibaloiko emakumezkoen lehen mailako Gernika KESB taldearen aurka. Saria: lagun bat gehiago sar dezakete irabazleak Bilbao Arenan Dominion Bilbao Basketen partida bateko atsedendian 5x5 partida bat jokatzeke. Aukera aparta gogoko jokalaria bertatik bertara ikusteko.

3ko futboleko eta minisaskibaloiko txapelketez gain (modalitate horietako sariak 14:00etan banatuko dituzte Bizkaia Bizkaialdeko bi kirolaririk), hainbat diziplinatako jarduerak antolatu dira, bai goizerako, bai arratsalderako.

Arratsalderako, berrikuntza bat dugu aurten: *swing* dantzako bi MasterClass eskainiko dira. Pausoak ikasi ondoren, ikasitako koreografia praktikatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek 'Crazy Jazzers' Dixie Band taldeak interpretatuko duen musikarekin.

Txapelketa inklusiboa

Arratsaldean, "Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako 3ko futbol-txapelketa inklusiboa" egingo da laugarren aldiz, Athletic Fundazioak lagunduta. "Animatu gehien behar duenari" lelopean, aurpegi ezagunak ere izango dira partida horretan. Talde mistoak osatuko dituzte denek, txapelketan parte hartzeko. Euskaltelek ere bere ekarpena egin nahi du, jendea sentibilizatzeko desgaitasunaren inguruan eta erakusteko kirola elementu integratzailea izan daitekeela, bai eta bide egokia ere

balioak transmititzeko (esaterako, zailtasunak gainditzeko grina). Uribe Kosta, Adizmi eta Haszten elkartetako jokalariek parte hartuko dute

2017ko KIROL-EGUNeko JARDUERAK:

1. ZUNBAKO MASTER CLASSA, 3 txanda: 11:15-12:00, 12:15-13:00, 13:15-14:00.
2. SWING DANTZAKO MASTER CLASSA: 17:15-18:00 eta 18:15-19:00
3. SHOWCASE (agertoki nagusia: 19:15-20:00) SWING DIXIE BAND
4. 3KO FUTBOLA *BOMBONERAn* (15 x 10eko zelaia, 17 x 12 guztira, 18 x 14 hesiekin). Hasiera: 11:00.
5. DESGAITASUN INTELEKTUALA DUTEN PERTSONAK KIROLEAN ONARTZEAREN ALDEKO TXAPELKETA: 17:15-20:00. SARI-BANAKETA: 20:15
6. JUMPING-A.
7. MINISASKIBALOA (20 x 12ko zelaia). Txapelketaren hasiera: 11:00.
8. KIROL EGOKITUA (Kirol Egokituaren Euskal Federazioa). SLALOMA + AULKIKO SASKIBALOA + HOCKEYA.
9. ESKALADA-MURRUA (4 bide).
10. BALANZ BIKE 10 bizikleta (28 x 16ko zirkuitua): 10 BIZIKLETA ETA LEKU HANDIAGOA.
11. 7 LEGOAKO BOTAK.
12. FRONTAINER-MUSEOA
13. BADMINTONA: Erakustaldiak: 12:00 eta 18:00 (haizearen arabera).
14. BEISBOLA.
15. BIDEO-JOKOAK.
16. HERRI-KIROLAK (erakustaldia: 13:00).
17. SURF-OHOL MEKANIKOA
18. XAKEA (erakustaldiak eta parte hartzeko aukera).
19. SOKATIRA (Bizkaialde, erakustaldiak goizean).
20. IBILKETA NORDIKOKO MASTER CLASSA (TINGLADOS) 12:00-13:30 eta 18:00-19:30.
21. LERROKO PATINAJEKO IBILBIDEEN MASTER CLASSA: 11:30-13:30, gutxi gorabehera, eta 17:30-19:30, gutxi gorabehera (irteera eta helmuga: TINGLADOS).
22. HAURREN LUDOTEKA (15 x 7)
23. PIRAGUAK (Pio Barojako pantalana).
24. BATELAK (Pio Barojako pantalana).

Euskaltel – Komunikazioa

94-4011229

comunicacion@euskaltel.com

